A pesar de las reticencias iniciales, ya que no había ningún antecedente de una asociación de este tipo en España, el Gobernador Civil de Gipuzkoa subrayó la calidad de las personas que formaban parte de la Comisión Organizadora, así como los objetivos que perseguían, que no eran otros que la creación de un centro cultural y de formación para las mujeres. Finalmente consideró que no había ningún inconveniente en conceder la autorización solicitada. Eso sí, hay que señalar la influencia ejercida en la toma de esta decisión tanto por el alcalde Esteban Orbea, que veía que era algo bueno para el pueblo y, por otro, la del sacerdote Rafael Artola y el obispo Jaume Font i Andreu. De todas maneras, las autoridades en ningún caso estuvieron dispuestas a permitir que la denominación de la Sociedad fuese en euskera, por lo que tuvieron que inscribirla como "Sociedad Femenina Eibarresa". A la muerte de Franco, pudieron volver a la idea original y pasaría a denominarse GOI ARGÍ (Luz de lo alto).

A pesar de todos estos obstáculos, el 19 de marzo de 1951, día de San José, se inauguró oficialmente la Sociedad. El primer Comité

Mercedes tarteko, Ekintza Katolikoko erizain laiko gisa identifikatzen zituen uniforme zuria zeramaten

G0I ARGI elkartea abian jartzeko, obligazioak ere izenpetu ziren, ez akzioak. Proposamen horri egindako harrerak espero zen erantzuna gainditu zuen, eta, kasu batzuetan, 250 pezetako obligazio bat 10 pertsonak sinatzen zuten. Horrek erakusten zuen, Apellanizen ustez, baliabide gutxien zeukaten familiak ere partaide egitea lortu zela. Urtero, pertsonalki banatzen zitzaizkien sortutako interesak, eta bazkide batzuk etxe etxe joaten ziren 50 pezetako obligazioei zegozkien interesak ematera; hau da, 1,50 pezeta.

Elkartea, hasieratik, bere izaera sozial eta kristau nabarmenagatik egin zen ezaguna herrian, emakumeei zuzendutako prestakuntza integraleko ildo bati jarraituz: ikastaroak, hitzaldiak... Oso ezagun bihurtu ziren sukaldaritza eskolak, "ping-pong mahaia" izeneko tokian ematen zirenak, Loliola tabernako Felisa sukaldari handiaren eskutik. Inauguratu zenean, ia 15 egunean behin, antzerkia egiten zutela dio Apellanizek. Jarduera guztiak lanegunetan antolatzen ziren, arratsaldeko zazpietatik aurrera, aurretik emakumeek lan egiten zutelako. Hitzaldi eta ikastaro horiek guztiak doan ematen ziren, eta nahi zuten emakume eta gazte guztiek parte har zezaketen, salbuespenik gabe eta elkartekide izan beharrik gabe. Lagunak egiteko gune ere bilakatu zen G0I ARGI. Garai hartan ez zen batere ohikoa neska talde bat zezenketa batean ikustea, edota kalean edo kafetegi batean, gizezkorik gabe.

G0I ARGiko bazkideak 1960an hasi ziren "koaderno gorri" izeneko haiek erabiltzen, 50 bat elkartekideren artean banatzen

Organizador estubo compuesto por Julia Sarasqueta Irigoyen, de Escopetas Sarasqueta (presidenta), Josefina Orbea Arrillaga, hermana del alcalde Esteban Orbea (secretaria), María Irusta Vicuña (tesorera), Francisca San Miguel Guisasola (vocal) y María Teresa Ganchegui Juaristi (vocal). La presencia de Josefina fue clave para conseguir el permiso. Las mujeres que aparecen en primera fila, según podemos apreciar en esta foto captada aquel día, entre ellas Mercedes, vestían un uniforme blanco que las identificaba como enfermeras laicas de acción Católica.

Para la puesta en marcha de G0I ARGI también se suscribieron obligaciones, no acciones. La acogida a esta propuesta superó lo esperado y en algunos casos, una obligación de 250 pesetas era suscrita por 10 personas. Esto demostraba, según Apellaniz, que también se había conseguido hacer partícipes a las familias con menos recursos. Cada año, se les repartían personalmente los intereses devengados y algunas socias acudían piso por piso a entregar los intereses correspondientes a las obligaciones adquiridas. Por ejemplo, para una cantidad de 50 pesetas les correspondían unos intereses de 1,50 pesetas.

Esta asociación, desde sus inicios, se hizo popular en la localidad por su marcado carácter social y cristiano, siguiendo una línea de formación integral dirigida a las mujeres: cursos, conferencias... Se hicieron muy populares las clases de cocina, que se impartían en la que llamaban "mesa de ping-pong", de la mano de la gran cocinera del bar Loliola, Felisa. Cuando se inauguró, "casi cada 15 días, hacíamos teatro", relata Apellaniz. Todas las actividades se efectuaban en días laborales y se organizaban a partir de las siete de la tarde porque antes de ese horario las mujeres trabajaban. Estas charlas y cursos se impartían de forma



Ezkerretik eskumara, Tere Gantxegi eta Maritxu Irusta. Erdian Esteban Orbea, eta alboan Mercedes Kareaga eta Josefina Orbea

De izquierda a derecha, Tere Gantxegi y Maritxu Irusta. En medio, Esteban Orbea, y a su lado Mercedes Kareaga y Josefina Orbea.

zirenak. Lagunen eta Eibarko biztanleen artean, helburu sozialetarako dirua biltzeko tresna bikaina bilakatu ziren. Besteak beste, ASPACerentzat, San Andres Fundazioarentzat, Eibarko Patronatuarentzat eta, jakina, Talleres Cayetano Kareagarentzat. Koadernoaren orrietan Eibarko familien dohaintzak idazten ziren. Borondatezkoa zen, eta ez zekarren jarraitzeko konpromisorik. Mercedesek zioen bezala: "Eibarkoa da, Eibarrek beti izan du gorri izatearen fama".

Bere ibilbidean zehar, 34 ongintza tonbola inguru antolatu zituzten, lehen edizioetan, urtean bitan. Koadernoek kasuan bezala, biltzen zena oso-osorik banatzen zen Eibarren behar handiena zuten sektoreen artean, eta banaketari buruzko informazio publikoa ematen zen prentsari. Antolatzen ziren ongintza tonbolen artean, ezagunenak Arrate egunekoak ziren. Hori bai, Tere Gantxegik esaten zuen bezala: "Gu ez ginen azaltzen tonbolan, gu atzealdean egoten ginen, baina pozik". Opari onena, noski, bizikleta zen. Hori bai, preziatuenak kopinak ziren: "Arroparik gabe erosten zituen Mercedesek, eta bazkideen artean egiten zituzten arropatxoak gero", eta Calbetoneko "Sinforenean", erakusleihoan, jartzen ziren ikusgai. Ikusten dugunez, gizarte ekintza ugari eta askotarikoetan lankidetzan aritu ziren ["Adreilua" operazioa zaharren egoitzarako, misioak, haurtzaindegia...].

Denborak aurrera egin ahala, 70eko hamarkadan, elkarteak nolabait zaharkituta geratu zen, emakumeek, batez ere gazteek, aukera gehiago zeukatelako aisialdirako. Apellanizekin 2023ko otsailaren 2an GOI ARGIn bertan izandako solasaldian, hitz hauek esan zizkidan afinatu gabeko pianoari begira: "Laster itxiko da elkarte hau, eta 70 urte daramatzagu hemen. Bukatu egingo da, eta kitto". Gure esku dago horrela ez izatea.

Begoña Etxenagusia Atutxa

Argazkiak: Eibarko Udal Artxiboa, Tere Gantxegi Funtsa

GOI ARGiko emakumeak.



Las socias de GOI ARG.

gratuita y podían participar todas las mujeres y jóvenes que quisieran, sin excepción y sin necesidad de asociarse. GOI ARG también se convirtió en un espacio para que las mujeres hicieran amistades. En aquella época no era nada habitual ver a un grupo de chicas en una corrida de toros, en la calle o en una cafetería, sin hombres.

Las socias de GOI ARG comenzaron a utilizar en 1960 los denominados "cuadernos rojos", que se repartían a medio centenar de asociadas. Entre amigos y habitantes de Eibar, se convirtieron en una excelente herramienta para recaudar fondos para fines sociales dirigidas a asociaciones como ASPACE, la Fundación San Andrés, el Patronato de Eibar y, por supuesto, para Talleres Cayetano Kareaga. En las páginas del cuaderno se anotaban las donaciones de las familias eibarresas. Era voluntario y no suponía un compromiso de continuidad. Como apuntaba Mercedes: "Es de Eibar, Eibar siempre ha tenido fama de ser rojo".

A lo largo de su historia organizaron cerca de 34 tómbolas benéficas, las primeras ediciones tenían lugar dos veces al año. Al igual que con los cuadernos, lo que se recogía se repartía íntegramente entre los sectores que requerían más atención y se publicaba información en prensa sobre su distribución. Entre las tómbolas benéficas que se organizaban, las más conocidas eran las del día de Arrate. Eso sí, como decía Tere Gantxegi: "Nosotras no estábamos en primera línea en la tómbola, estábamos en la retaguardia, pero contentas". El regalo estrella, por supuesto, era la bicicleta, aunque el más apreciado eran las muñecas: "Mercedes las compraba sin ropa y luego las confeccionaban las propias socias" y se exhibían en la "Sinfo" de Calbetón, en el escaparate. Por tanto, como hemos podido apreciar las socias de GOI ARG colaboraron en numerosas y variadas acciones sociales (la operación "Ladrillo" para obtener fondos para la residencia de ancianos, las misiones, la guardería...).

Con el paso del tiempo, en los años 70, la asociación quedó de alguna manera desfasada, ya que las mujeres, sobre todo las jóvenes, contaban con más opciones de ocio. En la conversación mantenida con Apellaniz, el 2 de febrero de 2023, en el mismo GOI ARG y mirando al viejo piano que necesita ser afinado, me dijo estas palabras: "Pronto se cerrará esta sociedad y llevamos aquí 70 años. Se acabará y punto ". Depende de nosotras que no sea así.

Begoña Etxenagusia Atutxa

Argazkiak: Eibarko Udal Artxiboa, Tere Gantxegi Fondoa

PORTALEA 1996 - 2026. 30 URTE. ZENBAKIAK BAINO ZERBAIT GEHIAGO

PORTALEA 1996 - 2026. 30 AÑOS. ALGO MÁS QUE NÚMEROS

Portalea Bistaeder kaleko 10 zenbakian dago Aguirre y Aranzabal eskopeta tailerra izandakoaren eraikinean. Aste barruan goizeko zazpitan irekitzen ditu ateak. Gaueko hamar arte ehun lagunetik gora aritu ohi dira lanean bertan. Besteak beste, Euskaltegiko, Musika Eskolako, Dibujo Eskolako, Zeramika Eskolako, Kzguneko eta Kezka Dantza Eskolako irakasleak, bilera-geletan tailerrak ematen dituzten monitoreak (alfabetatzea, gaztelania ikastea, eskulanak, argazkigintza, dantza hainbat modalitatetan, irakurketa-klubak, sukaldaritza-ikastaroak eta beste batzuk), garbiketa-eta mantentze-enpresetako langileak, Portaleko tabernako langileak, eta Atezaintzako, Gizartekintzako, Euskara Saileko, San Martin Liburutegiko, Armagintzaren Museoko eta Kulturako langileak.

Irekita dagoen orduetan, mila pertsona inguru joan ohi dira zerbitzuak jasotzera. Interes, behar eta nahi desberdinak dituzten pertsonak. Baina guztiak ere udaleko hainbat sailek eta kolektibok Portalean eskaintzen dituzten zerbitzuak jasotzeko prest.

Hasi euskara, musika, dibujo eta dantza eskolak jasotzetik eta herritarrei eskubidea ematen dieten paperak egiteraino, Erakusketa Aretoko lanak edo Armagintzaren Museoko Eibarko historia ikustetik egunkariak eta aldizkariak irakurri edo maileguan utzitako liburu bat eramateraino, etxeko laguntza edo besteren bat kudeatzetik -zeina inork ez duen uste erabiliko duenik, tokatzen den arte- kolektibo ahul bateko kide izategatik aholkularitza jasotzeraino, edo irakurketa-klub bateko kide izatek hasi eta ipuin kontaketa saio betara edo alfabetatze-saio batera joateraino...

Portaleak dituen zortzi mila ehun eta hogeita hamar metro karratuak denentzat daude irekita. Irailaren hogeita zortzian hogeita hamar urte beteko ditu. Hamar mila eta bederatzehun egun izango dira Agirre y Aranzabal eskopeta tailer zaharra (AYA) Portalea bihurtuko zenetik. Arkitektoak José Manuel Muñagorri, Javier Marquet eta Luis M^a Zulaica izan ziren. Hasierako birmoldaketak hiru milioi eta zortzihun mila euroko kostua izan zuen. Eta beste bi milioi euro inguru gastatu dira gerora egin diren birmoldaketetan.

Portalea está sito en la calle Bista Eder 10, en el antiguo edificio de la fábrica de escopetas Aguirre y Aranzabal. Entre semana abre sus puertas a las siete de la mañana. Hasta las diez de la noche habrán prestado sus servicios más de un centenar de personas. Esa cantidad es la suma del profesorado del Euskaltegi, la Musika Eskola, la Escuela de Dibujo, la Escuela de Cerámica, el Kzguneko, de la Kezka Dantza Eskola, de las monitoras que imparten sus clases en los distintos talleres y salas de reuniones, que van desde la alfabetización, la del aprendizaje de castellano, distintas manualidades, fotografía, danza en distintas modalidades, los clubs de lectura, cursillos de cocina y otros; del personal de las empresas de limpieza y mantenimiento; de la taberna Portalea; de Conserjería, Gizartekintza, Departamento de Euskera, Biblioteca Juan San Martín, del Museo de la Industria Armera y Cultura.

Durante esas horas de apertura habrán pasado aproximadamente un millar de personas a recibir servicios. Personas con distintos intereses, necesidades y querencias. Pero todas ellas a recibir los servicios que distintos departamentos del ayuntamiento y colectivos prestan en Portalea.

Desde recibir clases de euskera, música, dibujo, danza, hasta el poder arreglar los papeles que dan derecho a la ciudadanía; desde contemplar las obras de la Sala de Exposiciones o la historia de Eibar en el Museo de la Industria Armera, hasta leer el periódico, las revistas o poder llevarse un libro prestado; desde la gestión de la ayuda domiciliaria u otra, que casi todas las personas piensan que no van a utilizar hasta que toca, al asesoramiento por pertenecer a un colectivo vulnerable; desde formar parte de un club de lectura, a asistir a un cuento, o acudir a clases de alfabetización...

Los ocho mil ciento treinta metros cuadrados con los que cuenta Portalea están abiertos a todas y a todos. El próximo veintiocho de septiembre cumplirá treinta años. Serán diez mil novecientos días desde los que el antiguo taller de escopetas Aguirre y Aranzabal (AYA) se convirtiera en Portalea. Su remodelación inicial costó tres millones ochocientos mil euros. Los arquitectos fueron José Manuel Muñagorri, Javier Marquet y Luis M^a Zulaica. Y otros dos millones de euros aproximadamente se han gastado en las distintas remodelaciones que se han acometido.

Hasiera-hasieratik bertan egon ziren Udal Euskaltegia, Euskara, Kultura eta Gizartekintza sailak, Juan San Martin Liburutegia, Dibujo Eskola, Zeramika Eskola, Erakusketa Aretoa, Areto Nagusia, Dantza Aretoa, bilera-gelak, ikastarogelak, edo argazkilaritza-tailerra.

Hogeita hamar urte hauetan Portalean hainbat esku-hartze egin dira. 2007an, hirugarren eta laugarren solairuen zati batean Juan Bautista Guisasola Musika Eskola kokatu zen lehen edizioetan eta igogailu berri bat jarri. 2007an ere Armagintzaren Museoa ireki zen. 2008an, Juan San Martin Liburutegia handitu eta Euskaltegia birmoldatu zen. eta 2017an, eta lehen solairuko bilera-gelak berri ziren.

Juan San Martin Liburutegia da Portaleko gunerik bisitatuena. 3.778.858 bisita ditu, artikulu hau egiten den egunean. Udal Liburutegiak 11.978 alerekin (liburu, entziklopediak, liburuak, cd-ak, dvd-ak...) ekin zion bere ibilbideari Portalean. Gaur egun, 90.969 ale ditu, ia guztiak publikoaren eskura. Bazkide kopuruari dagokionez, Liburutegiak 1273 txartel zituen, egun, 13.352. Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kide da hasiera-hasieratik, eta funtsen katalogazioarekin lagundu dio sareari.

Portaleko erakusketa-aretoa erreferente bihurtu da euskal arte plastikoaren alorrean. Hogeita hamar urte hauetan, 400 erakusketa inguru hartu ditu, eta 135.000 bisita. Ehundik gora artista plastikok hartu dute parte, eta beren eskulturak, marrazkiak, pinturak, instalazioak eta argazkiak erakutsi dituzte. Horien artean, eta norbait kanpoan gera daitekeela jakinda, honako hauek aipatu behar dira, Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Zumeta, Néstor Basterretxea, Daniel Txopitea, Fernando Beorlegui, Iñaki Larrañaga, Paulino Larrañaga, Dora Salazar, Baroja Collet, José Antonio Azpilicueta, Marina Barrena, Esther Galarza, Leire Careaga, Ainize Txopitea, Aitor Etxebarria, Aitor Sarasketa, Alberto Ibañez, Alberto Rementería, Alfonso Gortazar, Almu Maeso, Angel Güenaga, Anton Hurtado, Bigen de Pedro, Carmen Palomero, Edurne Martínez, Espe Zabala, Fernando de Vicente, Florencio Alonso, Gonzalo Etxebarria, Gorka Larrañaga, Iker Valle, Inés Medina, Ion Etxebarria, Isamel Iglesias, Izaskun Alvarez, Javier Balda, Javier Rodríguez, Jon Amorrotu, Jon Ibalá, José Angel Lasa, José Ibarrola, José Kareaga, José Luis Irigoien, José Zugasti, Joserra Elorza, Josué Pena, Juan Antonio Palacios, Jua Ignacio Mendizabal, Juan Sagastizabal, Koldo Etxebarria, Maria Romero, Mariano Arsuaga, Marina Etxebarria, Marino Plaza, Miguel Pedroza, Miriam Isasi Arce, Olaia Peruarena, Patxi Laskarai, Pello Alberdi, Pilar Soberon, Ricardo Azkargorta, Rosa Valbuesa, Susana Jodrá, Txaro Arrazola, Txiki Agirre, Vivianne Straub, Zaloa Ipiña...

Portaleko lehen erakusketa muntatzeko ekipoa. Ezkerretik eskuinera Eva Alberdi, Marina Barrena, José Luis González (Poxpolo), Juan Luis Baroja Collet, Alex Cabezón Ortiz de Zarate eta Mari Fran Machín Ortuoste. Argazkia: Eibarko Kultura Saila.



Equipo montaje de la primera exposición de Portalea. De izquierda a derecha Eva Alberdi, Marina Barrena, José Luis González (Poxpolo), Juan Luis Baroja Collet, Alex Cabezón Ortiz de Zarate y Mari Fran Machín Ortuoste. Argazkia: Eibarko Kultura Saila

Desde sus inicios albergó el Euskaltegi Municipal, los departamentos de Euskera, Cultura y Gizartekintza, la Biblioteca Juan San Martín, la Escuela de Dibujo, la Escuela de Cerámica, la Sala de Exposiciones, el Salón de Actos, la Sala de Danza, las salas de reuniones, las salas cursillos, taller o el taller de fotografía.

En estos treinta años en Portalea ha contado con diversas intervenciones. En el año 2007 en parte de la tercera y cuarta planta se ubicó la Escuela de Música Juan Bautista Guisasola; también en el año 2007 se abrió el Museo de la Industria Armera; en el año 2008 se amplió la Biblioteca Juan San Martín y se remodeló el Euskaltegi. o en el 2017 se incorporó un nuevo ascensor y se reformaron las salas de reuniones de la primera planta.


La Biblioteca Juan San Martin es el espacio más visitado de Portalea. Cuenta con 3.778.858 visitas, a día de la elaboración de este artículo. La Biblioteca municipal inició su andadura en Portalea con 11.978 libros, enciclopedias, libros, cds, dvds... A día de hoy el número de volúmenes se eleva a 90.969, casi todos ellos a disposición del público. En cuanto al número de personas socias, la Biblioteca contaba con 1273 carnés; en el 2026 se han alcanzado las 13.352 personas socias. La Biblioteca forma parte de la Red de Lectura Pública de Euskadi desde sus inicios, a la cual ha contribuido con la catalogación de fondos.

La sala de exposiciones de Portalea se ha convertido en un referente en el ámbito de las artes plásticas vascas. A lo largo de estos treinta años ha albergado cerca de cuatrocientas exposiciones y ha contado con unas ciento treinta y cinco mil visitas 135.000 visitas. En las mismas han participado más de cien artistas plásticos, que han mostrado sus esculturas,

Erakusketa-aretoa eskualdeko artista hasiberriek beren lehen erakusketak egiteko erabili duten espazioa izan da eta da, bai eta euskal artista ezagunek ere atzera begirakoetan beren ibilbide osoaren bilakaera artistikoa erakusteko erabili duten tokia. Eta, nola ez, arte plastikoen esparruko Eibarko kolektibo eta eskolek beren lana erakusteko lekua ere izan da. Urtero Eibarko Klub Deportiboko Argazki Sailak, Eibarko Artisten Elkarteak, institutuko BHIko arte plastikoen ikasleek eta Dibujo eta Zeramika Eskolek Portalean izaten dute euren txokoa.

Hiru hamarkada hauetan asko izan dira Portaletik igaro diren kultura, gizarte, sindikatu, politika eta hezkuntza arloko pertsona ospetsuak. Kultur arlotik, Portalean izan dira Jean Haritschelhar, Andres Urrutia, Juan San Martin, Toti Martínez de Lezea, Pedro Luis Uriarte, Karmele Jaio, Eider Rodriguez, Katixa Agirre, Edurne Portela, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi, Rosa Regás, Forges, Nuria Espert, Jasone, Orena, Martxelo Gabilondo, Miguel Zugarrondo, Jose Otamendi, Antonio Zugarrondo, Miguel Urrutia, Jose Otamendi, Jose Otamendi, Otamendi, Miguel Zugarrondo... Sindikalgintzatik, Carlos Trevilla, Rafa Diaz de Usobiaga, Unai Sordo, Joxe Elorrieta izan ditugu. Politikaren esparrutik, arrazoi ezberdinak tarteko, hasi kontu instituzional zein alderdi arlokoetarako, honako politikari hauek egon dira Portalean: Iñigo Urkullu, Patxi Lopez, Mariano Rajoy, Alfredo Rubalcalba, Idoia Mendia, Miren Azkarate, Mari Karmen Garmendia, Blanca Urgell... Unibertsitate mundutik, Imanol Zubero, Juan Pablo Fusi, Paul Preston, Antonio Rivera, Josu Chueca, Luis Castells, Jose Luis de la Granja...

Portalearen inaugurazioa. 1996ko irailaren 28a. Liburutegia. Ezkerretik eskuinera José Mari Kruzeta, Marino Plaza, Juan San Martín, bizkarretik Rosa Suárez de Zuloaga, Fernando Beorlegui. Argazkia:... eta kitto!



Inauguración de Portalea. 28 septiembre de 1996. Biblioteca. De izquierda a derecha José Mari Kruzeta, Marino Plaza, Juan San Martín, de espaldas Rosa Suárez de Zuloaga, Fernando Beorlegui. Argazkia: ...eta kitto!

dibujos, pinturas, instalaciones, fotografías. Entre ellos, y a sabiendas de que se puede quedar alguien en el tintero, se ha contado con obra de Eduardo Chillida, Jorge Oteiza, Zumeta, Néstor Basterretxea, Daniel Txopitea, Fernando Beorlegui, Iñaki Larrañaga, Paulino Larrañaga, Dora Salazar, Baroja Collet, José Antonio Azpilicueta, Marina Barrena, Esther Galarza, Leire Careaga, Ainize Txopitea, Aitor Etxebarria, Aitor Sarasketa, Alberto Ibañez, Alberto Rementeria, Alfonso Gortazar, Almu Maeso, Ange Güenaga, Anton Hurtado, Bigen de Pedro, Carmen Palomero, Edurne Martínez, Espe Zabala, Fernando de Vicente, Florencio Alonso, Gonzalo Etxeberria, Gorka Larrañaga, Iker Valle, Inés Medina, Ion Etxebarria, Isamel Iglesias, Izaskun Alvarez, Javier Balda, Javier Rodriguez, Jon Amorrotu, Jon Ibaia, José Angel Lasa, José Ibarrola, José Kareaga, José Luis Irigoien, José Zugasti, Joserra Elorza, Josué Pena, Juan Antonio Palacios, Jua Ignacio Mendizabal, Juan Sagastizabal, Koldo Etxebarria, Maria Romero, Mariano Arsuaga, Marina Etxeberria, Marino Plaza, Miguel Pedroza, Miriam Isasi Arce, Olaia Peruarena, Patxi Laskarai, Pello Alberdi, Pilar Soberon, Ricardo Azkargorta, Rosa Valbuesa, Susana Jodrá, Txaro Arrazola, Txiki Agirre, Vivianne Straub, Zaloa Ipiña...

Ha sido y es el espacio en el que artistas noveles de la comarca han ejecutado sus primeras exposiciones, también la sala de exposiciones en la que artistas vascos reconocidos han mostrado en retrospectivas la evolución artística de toda su carrera. Y como no, también ha acometido el noble objetivo de ser el espacio en el que los colectivos y escuelas eibarresas del ámbito de las artes plásticas han podido exponer su obra. Todos los años la sección fotográfica del Club Deportivo Eibar, la Asociación Artística Eibarresa, el alumnado del BHI de plásticas del instituto, las Escuelas de Dibujo y Cerámica tienen en Portalea su espacio.

El Museo de la Industria Armera es un espacio dedicado a la conservación y difusión de la memoria histórica y el patrimonio industrial de nuestra ciudad. Abrió sus puertas con la colección de armas procedente del Museo de la Escuela Armería. Posteriormente se incorporaron una gran variedad de productos fabricados en Eibar (bicicletas, motos, máquinas de coser y otros objetos manufacturados) con marcas tan reconocidas con Alfa, Lambretta, G.A.C., Orbea, B.H., El Casco, Boj, Jata, Solac... procedentes de diversos fondos, donaciones y adquisiciones. En la actualidad sus fondos cuentan con un millar de armas, 6000 objetos, 6000 documentos y un centenar de obras de arte. Visitar sus salas es disfrutar de un recorrido por el devenir de la historia industrial y la evolución tecnológica de Eibar y la comarca, desde el siglo XIV hasta nuestros días. Ha conseguido subir a la categoría de museable los tornillos,

Armeria Eskolako Museoren arma-bildumarekin ireki zituen ateak. Ondoren, Eibarren fabrikatutako produktu ugari gehitu ziren (bizikletak, motorrak, josteko makinak eta manufakturatutako beste objektu batzuk), funts, dohaintza eta erosketen bidez. Aipatzekoak dira funtsak gordetzen dituen marka ezagunak, hala nola Alfa, Lambretta, GAC, Orbea, BH, El Casco, Boj, Jata, Solac eta abar. Gaur egun, mila bat arma, 6.000 objektu, 6.000 dokumentu eta ehun artelan daude bilduman. Bertako aretoak bisitatuz asko ikas daitezke Eibarko eta eskualdeko historia industrialaren eta bilakaera teknologikoaren (XIV. mendetik gaur egunera arte) inguruan. Eibarko Industriaren Museoa torlojuak, iltzeak, malgukiak eta burdinezko beste elementu batzuk museo batean erakusteko moduko pieza bihurtzea lortu du. Gaur egun industria-ehunaren topagune bat da eta eskualdeko enpresen konplizitatea duen museoa, zeinek behin baino gehiagotan aukeratzen duten beren ospakizunak eta urteurrenak egiteko. Bestiak beste, Eibarko Trust enpresaren mendeurrena, Elorza y Larrañaga (Alycon), Alfa, Boj, Acha tailerraren 85. urteurrena...

Dibujo Eskola, 1895ean sortua, eta Zeramika Eskola 1996an kokatu ziren Portalean. Kezka dantza-taldeak ere Portalea eraman zuen bere eskola urte hartan. Argazkigintza-tailerra

clavos, muelles y otros elementos ferreteros. Se ha convertido en un espacio de encuentro del tejido industrial, en un museo que cuenta con la complicidad de las empresas de la comarca, siendo elegida en más de una ocasión como lugar para realizar sus conmemoraciones y aniversarios. Entre otras se han llevado a cabo exposiciones como la del Centenario del Trust Eibarrés, Elorza y Larrañaga (Alycon), Alfa, Boj, 85 Aniversario de Acha...

Durante estas tres décadas muchas son las personalidades del ámbito cultural, social, sindical, político y educativo que han pasado por Portalea. En el ámbito cultural, Portalea ha contado con la presencia de Jean Haritschelhar, Andrés Urrutia, Juan San Martín, Toti Martínez de Lezea, Karmele Jaio, Pedro Luis Uriarte, Eider Rodríguez, Katixa Agirre, Edurne Portela, Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi, Rosa Regás, Forges, Nuria Espert, Jasone Osoro, Alfonso Sastre, Fernando Arrabal, José Antonio Labordeta, Jorge Oteiza, Miguel Zugaza, Iñaki Gabilondo, Martxelo Otamendi, Garbiñe Biurrun, Kirmen Uribe... Del mundo sindical hemos contado con la visita de Carlos Trevilla, Rafa Díaz de Usobiaga, Unai Sordo, Joxe Elorrieta. Del ámbito de la política Portalea han acudido a Portalea por diferentes motivos, desde el institucional al meramente partidario, entre otras, las siguientes personalidades: Iñigo Urkullu, Patxi López, Mariano Rajoy, Alfredo Rubalcalba, Idoia Mendia, Miren Azkarate, Mari



Portaleko lehen erakusketan parte hartu zutenak. 1996ko iraila. Ezkerretik eskuinera: Alberto Rementeria, Pello Alberdi, José Ramón Elorza, Juan Luis Baroja Collet, Marino Plaza, Fernando Beorlegui, M^a Fran Machín Ortuoste, Elena Maiora, Leire Careaga, Marina Barrena eta Daniel Txopitea. Asier Laspiur, Jose Zugasti eta Jose Antonio Azpilicueta falta dira argazkian. **Argazkia:... eta kitto!**

Participantes en la primera exposición de Portalea. Septiembre de 1996. De izquierda a derecha Alberto Rementeria, Pello Alberdi, José Ramón Elorza, Juan Luis Baroja Collet, Marino Plaza, Fernando Beorlegui, M^a Fran Machín Ortuoste, Elena Maiora, Leire Careaga, Marina Barrena y Daniel Txopitea. Faltan en la foto Asier Laspiur, José Zugasti y José Antonio Azpilicueta. **Argazkia: ...eta kitto!**

ere han ematen hasi ziren. Bi tailer balioaniztun eta hiru bilera-gela ireki ziren. Eta Musika Eskola ere Portalara joan zen. Eskola horietako bisitak, Kezkako Dantza Eskolakoekin batera, 1.166.400 direla kalkulatu da.

Portalean dauden ikastaro eta bileretarako gelei dagokienez, urtean 3.500 erabilera inguru izan ohi dira. Hau da, Portaleko espazioen 105.000 erabilpenen estimazio bat egin daiteke.

Urtero, batez beste, kultura, gizarte, enpresa eta sindikatu arloetako laurogeita hamabost entitatek erabiltzen dituzte Portaleko lokalak. Entitate horietako gehienak Eibarkoak dira, baina baita Euskal Herriko beste toki batzuetakoak ere. Horien artean, Eibarko Klub Deportiboa, bere atal ezberdinekin, Filatelia Elkartea, Artisten Elkartea, Pagatxa, Eibar Kirol Elkartea, Kezka, ...eta Kitto!, Safa, ADAHIGI [Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen elkarte], Berriztu [nerabeentzako hezkuntza-programak], Bizi-Bide [fribomialgia, neke kronikoa...], Kalekxa [gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen laguntzeko elkarte] eta erretiratu eta pentsiodunen elkarteak. Baita Matia eta Goyeneche fundazioetako taldeak ere.

Portalea, hogeita hamar urte hauetan, kulturarako espazio bat izan da, euskararako, euskalduntzerako, aisialdirako, formaziorako, hausnarketarako, politikarako, adierazpenerako, alfabetatzerako, eta ezberdinekin topo egiteko. Gainera, tramiteak eta paperak –hain beharrezkoak eta ezinbestekoak– egiteko, eguneroko bizitza hobetzeko, balio duen espazioa ere bada.

Hogeita hamar urte bete ditu Portaleak. Bederatzi milioi bisita bere espazioetan, eta zerbitzuak jaso dituzten makina bat lagun. Pertsona horiek guztiak besoak zabalik hartu ditugu, zerbitzu publikoaren kontzeptuaren babespean, bai kultura-edo hezkuntza-esparrutik etorri direnak erakusketa, hitzaldi, tailer eta hitzaldietan beren zerbitzuak eskaintzera, bai publiko gisa egon direnak antolatutako ekitaldi kultural eta sozialetan, bai eta beren bizitzan funtsezkoa eta beharrezkoa dena konpontzera etorri direnak ere [prekariatatea, zaurgarritasuna, errekurtso falta].

Oraindik Portalea bisitatu ez baduzue, jakin ezazue hemen daukazuela zuen espazioa. Beti itxarongo dizue, lelo honekin, eskerrik asko etortzeagatik.

José Luis González Blanco

Karmen Garmendia, Blanca Urgell... Del mundo universitario Imanol Zubero, Juan Pablo Fusi, Paul Preston, Antonio Rivera, Josu Chueca, Luis Castells, José Luis de la Granja...

La Escuela de Dibujo, fundada en 1895, y la Escuela Cerámica se ubicaron en 1996 en Portalea. Kezka también trasladó ese año su escuela a Portalea. Se ubicó el taller de fotografía. Se abrieron dos talleres polivalentes y tres salas de reuniones. Y la Escuela de Música se trasladó a Portalea. Las visitas en estas escuelas, junto con las de la Dantza Eskola de Kezka a lo largo de estos treinta años, se estiman en 1.166.400.

En lo que respecta a las salas de cursos y reuniones ubicadas en Portalea, se estiman unas 3.500 utilizaciones al año. Es decir se puede decir que Portalea ha albergado 105.000 utilizaciones en sus locales.

Una media de noventa y cinco entidades culturales, sociales, empresariales, sindicales... cada año utilizan los locales de Portalea. La mayoría de ellas eibarresas, pero también vascas. Entre ellas las asociaciones Club Deportivo Eibar, con sus diversas secciones, la Asociación Filatélica, la Asociación Artística, Pagatxa, Club Deportivo Eibar, Kezka, ...eta kitto!, Ikasten, Safa, Altzoa, ADAHIGI [Asociación de déficit de atención con hiperactividad], Berriztu [programas educativos dirigidos a adolescentes], Bizil-Bide [fribomialgia, fatiga crónica.], Kalekxa [acompañamiento a personas en situación de exclusión social], asociaciones de personas jubiladas y pensionistas. También grupos de las fundaciones Matía y Goyeneche.

Portalea en esto treinta años ha sido un espacio para cultura, el euskera, la euskaldunización, el ocio, la formación, la reflexión, la política, la expresión, la alfabetización, el encuentro entre diferentes. Además también es el espacio que ha servido y sirve para arreglar los papeles – tan vitales y necesarios – , para hacer mejor la vida, tanto en Portalea, como en el espacio público, la calle o en casa.

Portalea cumple treinta años. Nueve millones de visitas en sus espacios, infinidad de personas que han recibido sus servicios. Todas ellas han sido recibidas con los brazos abiertos, bajo el sacro concepto de servicio público, desde las que han venido del ámbito cultural o educativo a ofrecer sus servicios en exposiciones, conferencias, talleres, charlas, a las que acudieron como público a las actividades culturales y sociales organizadas, como a aquellas que han venido a solucionar lo esencial y lo necesario en sus vidas, como son la precariedad, la vulnerabilidad, la falta de recursos.

Si todavía no han visitado Portalea, sepan que aquí tienen su espacio. Siempre les esperará con un gracias por venir.

José Luis González Blanco

Eibarko Txirrindulari Elkartea: mende oso bat gurpil gainean

CLUB CICLISTA EIBARRÉS: CIEN AÑOS DE HISTORIA SOBRE RUEDAS

Mende bat gurpil gainean ez da zifra borobil hutsa, txirrindularitzan kirola baino askoz gehiago aurkitu duten belaunaldien historia da. Eibarko Txirrindulari Elkarteak klubaren, Eibarren eta txirrindularitza ulertzeko modu baten arteko ehun urteko historia ospatzen du. Ibilbide luze eta oparo horretan, elkartea, txirrindularitzaren bilakaeraren lekuko eta protagonista izan da, eta bizirik eutsi dio Eibarren zein Euskal Herri osoan errotutako tradizioari.

Eibarko Txirrindulari Elkartearen jaiotze-data ofiziala 1926. urtea bada ere, gaur egun duen izena ez zuen 1927ra arte hartu. Club Ciclista GAC izenarekin jaio zen eta, handik urtebetera, 1927an, CCE-GAC izena hartu zuen lehenengo eta CCE ondoren, urte horretan erabaki baitzen Eibarko bizikleta-marka historikoaren erreferentzia behin betiko kentzea eta egungo izena ezartzea. Lehen urte haietan funtsezkoa izan zen Eulogio Garate [GAC-ko zuzendaritzako kidea], Hermógenes Larrañaga eta Eulogio Bustindui bezalako figuren lana, azken hori izan zen Eibarko Txirrindulari Elkarteko lehen presidentea.

Baliabide xumeekin, baina grina handiz, kluba lehen lasterketak antolatzen hasi zen, txirrindularitzaren erreferente bihurtuko zen ibilbidearen oinarriak ezarriz. San Juan Sari Nagusitik edo Errepublikako Sari Nagusitik hasi eta Eibarko Bizikleta, Euskal Herriko Itzulia/Eibarko Bizikleta Sari Nagusia, Valenciaga Memoriala edo Euskal Bizikleta bezalako proba emblematicoetaraino -azken hori Eibarko Klub Deportiboarekin batera antolatua-, Eibarko Txirrindulari Elkarteak arrasto ahaztezina utzi du kirol honen historian.

Lasterketa profesional handietatik harago, klubak beti izan du konpromiso irmoa oinarritzako eta afizionatu mailako txirrindularitzarekin, gizon zein emakumezkoen maila eta belaunaldi desberdinetarako lehiaketak antolatuz. Eta konpromiso hori eutsi dio, bere sorrerako espiritu berari fidel jarraituz.

Un siglo sobre ruedas no es solo una cifra redonda; es la historia de generaciones que han encontrado en la bicicleta mucho más que un deporte. El Club Ciclista Eibarrés celebra cien años de historia compartida entre un club, una ciudad y una manera de entender el ciclismo. A lo largo de este tiempo, la entidad ha sido testigo y protagonista de la evolución de este deporte, manteniendo viva una tradición profundamente arraigada en Eibar y en todo el País Vasco.

Aunque 1926 figura como la fecha oficial de nacimiento del club, la denominación con la que hoy lo conocemos no se adoptó hasta el año siguiente. Fundado inicialmente como Club Ciclista GAC, en 1927 pasó a denominarse primero CCE-GAC y, poco después, CCE, tras acordar eliminar definitivamente la referencia a la histórica marca de bicicletas eibarresa y establecer la denominación actual del club. En aquellos primeros años resultó fundamental la labor de figuras como Eulogio Garate, directivo de la GAC, Hermógenes Larrañaga y Eulogio Bustindui, quien terminaría convirtiéndose en el primer presidente del Club Ciclista Eibarrés.

Con medios modestos, pero con una enorme pasión, el club comenzó a organizar sus primeras carreras, sentando las bases de una trayectoria que acabaría convirtiéndolo en un referente del ciclismo. Desde el Gran Premio San Juan o el Gran Premio de la República hasta pruebas tan emblemáticas como la Bicicleta Eibarresa, la Vuelta al País Vasco / Gran Premio Bicicleta Eibarresa, Memorial Valenciaga o la Euskal Bizikleta entre otras, organizada esta última junto al Club Deportivo Eibar, el Club Ciclista Eibarrés ha dejado una huella imborrable en la historia de este deporte.

Más allá de las grandes pruebas profesionales, el club ha mantenido siempre un firme compromiso con el ciclismo de base y amateur, organizando competiciones para distintas categorías y generaciones de corredores y corredoras. Una labor constante que mantiene vivo el espíritu con el que nació hace ya un siglo.



Hala ere, tradizio horri eustea ez da erraza. Elkarte historiko askotan gertatu ohi den bezala, gero eta zailagoa da ardurak hartzeko eta klubaren eguneroko lanari denbora eskaintzeko prest dauden pertsonak aurkitzea. Alabaina, belaunaldi berriak ari dira, pixkanaka, pasio horri eusteko lan egin zutenen lekukoa jasotzen.

Ehun urte hauetan hutsik egin ez duen zerbait bada, zaletuen erantzuna izan da. Eibarko herria beti egon da txirrindularitzaren ondoan, errepideak betez, lasterketak jarraituz eta proba bakoitza bere eginaz. Horregatik, zaila da Eibar ziklismorik gabe imajinatzea, edota txirrindularitza Eibar gabe. Mende bateko historia partekatuan bien artean sortutako harremana banaezina da.

Mendeurren honek herritar guztiei irekitako ospakizuna izan nahi du, historia honen parte izan diren guztiei omenaldia eta Eibar eta bizikletaren arteko lotura sendotzen jarraitzeko aukera. Izan ere, urteurren hau ez da amaiera-puntu bat, hasiera berri bat baizik. Txirrindularitza maite dugunok ondare hori zaintzen jarraitzeko prest gauden bitartean, Eibarko Txirrindularitza Elkartearen historiak aurrera jarraituko du, gurpilez gurpil, etorkizunerantz.

Zorionak!

Maidar Aranberri

Argazkiak / Fotos: Eibarko Txirrindulari Elkarte

Mantener esa tradición no siempre resulta sencillo. Como sucede en muchas asociaciones históricas, cada vez es más difícil encontrar personas dispuestas a asumir responsabilidades y dedicar tiempo al trabajo diario del club. Aun así, nuevas generaciones continúan recogiendo el testigo de quienes durante décadas trabajaron de manera desinteresada para mantener viva esta pasión.

Y si algo nunca ha fallado en estos cien años ha sido la respuesta de la afición. El público eibarrés siempre ha estado al lado del ciclismo, llenando las carreteras, apoyando las carreras y sintiendo cada prueba como algo propio. Quizá por eso resulte difícil imaginar un Eibar sin ciclismo, o incluso el ciclismo sin Eibar.

Este centenario quiere ser también una celebración abierta a toda la ciudadanía: un homenaje a todas las personas que han formado parte de esta historia y una oportunidad para seguir fortaleciendo el vínculo entre Eibar y la bicicleta. Porque este aniversario no supone un punto final, sino un nuevo comienzo. Mientras existan personas amantes del ciclismo dispuestas a preservar este legado, la historia del Club Ciclista Eibarrés seguirá avanzando, rueda a rueda, hacia el futuro.